




**Bilboko  
Elizbarrutia**  
DIÓCESIS DE BILBAO

**JESUS JAIO  
ZAIGU**

**C SAIOA**  
**ETXEAN, FAMILIA EGITEKO**

**Delegación de Anuncio y Catequesis**  
**Fede- Zabalkunde eta Katekesirako Ordezkaritza**



**JESUS, MESIAS,  
JAUNA JAIO ZAIGU  
(LK 2, 11)**

## **1. Helburua**

- Eguberri aldian Jesus gure munduan, gure etxean eta gure bihotzean jaiotzen dela ospatzen dugula ikusi.

## **2. Edukiak**

- KATEKESIA ALDERDIA. Eguberrietan, Jesusen Jaiotza ospatzen dugu.
- HITZA ETA OTOIZA ALDERDIA. Jesusen Jaiotzaren kontaketa.
- ELKARTEA ALDERDIA. Eguberrien elkarte ospakizuna.
- OSPAKIZUNA ALDERDIA. Elkarrekin goaz Belenerantz. Abendu – Gabon aldia.

## **3. Saioa**

- C Saioa, etxean, familian egiteko

## **4. Aurkituko duzuna**

- Motibazioa: ideia nagusiak.
- Jainkoaren Hitza txatala.
- Abestia / ipuina / bideoa.
- Saioaren garapeneko jarduera eta azalpen zehatza.
- Bilketa eta laburpena egiteko proposamena.
- Ezinbesteko lagungarriak.

# C SAIOA ETXEAN, FAMILIA EGITEKO



## Motibazioa

- Eguberrietan, Jesus gure munduan, gure etxean gure bihotzean jaiotzen da.



## Azpimarrak

- Jainkoak Jesusengan gure giza izaera bizi nahi duela ikusi.
- Gure Eguberri aldiari kristau sena eman.



## Ideia nagusiak

- Jesusen jaiotzaren kontaketa (**Lukas 2, 1-20**) da saioaren ardatza.
- Belenen jaiotzen den Jesusengan, Jainkoa "gure antzeko gizaki" bihurtzen da. Lagun bakoitzarengana hurbiltzen da aska batean jaiotzen den Haurraren "pobretasunaren" bitartez.
- Eguberrietako gertaera ez da besterik gabe gogoratu egiten dugun jazoera historikoa; hurkotasun, harrera, maitasun, zuzentasun, elkartasun... zeinu eta ekintza bakoitzean eguneratu egiten den gertaera da. Argietatik, abestietatik, apaingarrietatik, kontsumotik... harago, Eguberri aldiko ospakizuna egundoko berri da kristauentzat: Jainkoa "gurekin da".



## Saioaren garapena begi-kolpe batean

### Jainkoaren Hitza, txatal argitzailea

Orduan, bat-batean, egundoko distira zuen argiak zerua argitu zuen. Argiaren erdian, zutunik, aingerua zegoen. Ozen hitz egin zien artzainei esanez: "Berri onak! Inoiz eman dizueten berririk onena! Zuontzat eta mundu osoarentzat! Gaur, Belenen, zuon erregea jaio da!

"Zure Lehen Biblia", Giltza 292 - 301 orri

### Videos

Abesteko, egin klik irudiaren gainean: "Olentzero rockero"



Abesteko, egin klik irudiaren gainean: "Una estrella sin nombre"




"Desde abajo" entzuteko, egin klik irudiaren gainean



### Jarduera

- "Jaiotza ipiniko dugu"
- Pelikula ikusiko dugu



### Bilketa eta laburpena egiteko proposamena

- Gabon-gaua
- Eguberri-eguna






## Ezinbesteko lagungarriak

- Jaiotzaren ebakigarria.
- Guraizeak.
- Itsasgarria.
- Kandelak.

Garrantzitsua da aldez aurretik saioaren dinamika ulertzeko eta saioan behar izango dugun guztia prestatzeko astia hartzea.



## Saiorako gida

### Familiarentzat...

Eguberri aldian, familian egiten diren jarduera eta topaketei esker, hainbat aukera izaten dugu Eguberrien kristau sena geure egiteko.



### Hainbat aukera eta ideia



Jaiotzaren **"ebakigarria"** (l. eranskina) erabiliko dugu.

- Haur bakoitzak irudiak margotu eta ebaki egingo ditu.
- Irudiekin dabilzala, aitek eta amek Jesusen Jaiotzaren istorioa konta diezaiekete



### Jaiotza ipini

- Familiek jaiotza ipin dezatela hurrekin batera.
- Etxeko jaiotzari argazkia atera eta katekistari bidali, katekesiko taldean erakutsi dezan.



Eguberri aldian, ondorengo ariketa egin:

- Familiako bikde guztiak jaiotzaren inguruan ipiniko dira.
- Isilik, jaiotzaren barruan dagoela imajinatuko du kide bakoitzak, jaiotzako pertsonaia dela eta istorioa asmatuko du (zer gertatzen den, zer dioten pertsonaiek...).
- Tarte batez isilik egon eta gero, bakoitzak bere istorioa kontatuko die besteei.
- Amaitzeko, ondorengo **entzungo dugu...**

**"Desde abajo"  
entzuteko, egin klik  
irudiaren gainean**



Eguberri aldiak familian egoteko aukera ematen digu. "Se armó el Belén" pelikula ikus daiteke. Lehen Eguberriak nolakoak izan ziren ikusteko balio digu.

**Egin klik  
irudiaren gainean, pelikularen  
gorabeherak ezagutzeko**



### Gabon-gaua.

- Jesus Haurra ipiniko dugu jaiotzan.
- Kandela piztuko dugu.
- Eskerrak emango dizkiogu gure etxean jaiotzeagatik.
- Abestu egingo dugu.

**"Una estrella sin  
nombre" abesteko, egin klik  
irudiaren gainean**



**"Olentzero  
rockero" abesteko, egin  
klik irudiaren gainean"**



### Eguberri-eguna

- Joan elizara eta ospatu elkartarekin Jesusen jaiotza.



# I. ERANSKINA

